

Jose Elorrieta

«Euskal instituzioak lobbyen menpe daude»

Loiu (Bizkaia), 1951. Baserritarra. Asuako giro langilean hazia. Ezkerreko ideologia bere egin zuen frankismoan. 31 urte daramatza ELAn, aurki hogeit beteko ditu idazkari nagusi bezala. Aro bat markatu du ELAn zein euskal sindikalgintzan: “Gu hasi ginenean baino hobeto prestatuta dago ELA orain, ekarpena kolektiboa da, ez pertsona batena. Alde horretatik baikorra naiz”.

MIKEL ASURMENDI


Argazkiak: Dani Blanco

ELAk Gernikan duela hamar urte burutu zuen ekitalditik, hurrengo berba hauek gogorarazi dizkigu bereziki Jose Elorrietak: “Egoera oso-oso gogorra zen, baina itxaropentsua”. Bere berbetan ETArekin eta Estatutuaren denbora amaitua zen ordurako. Egoera hark –abertzaleen indar metaketa helburu– ziklo berria zabaldu zuen, Lizarra-Garaziko Akordioarekin eta honen porrotarekin amaitu zena: “Orain hamar urte ginen puntu berean gaude gaur egun. Estatutuak ez dauka bide egiterik, eta ETak zer esanik ez” diosku ELAko idazkari nagusiak.

Bilboko Arriaga antzokian burutu duzuen ekitaldiaren ostean, zer geratu zaizu buruan bereziki? Langileok, ELAkook behintzat, euskal administrazioarekin –Jaurlaritzarekin bereziki– dugun etsipena eta desengainua. Ez da desadostasun puntuala gainera. Ez. Gure esperientziaren arabera, herritarren eta administrazioaren arteko apurketa sakona da. Une batez Gernikako Estatutua klabe politikoan aurrera eramateko lidergoa izan zen, tentsio politiko bat, errebindikatzeko gogo. Garaikoetxearen garaian oso garbi ikusi zen hori. Estatutua behin eta berriro politikoki bete behar zela aldarrikatzen zen. Ardanza lehendakari izan zenean bukatu zen fase hori.

Egun, aldiz, nola ikusten duzu Eusko Jaurlaritza? Jaurlaritzak Estatutua bete behar dela dio, baina politikoki ez du hori lantzen. Praktikan kudeaketa hutsera mugatu du politika, interes konkretuak eta propioak zaintzera; interes ekonomikoak eta enpresa interesak. Euskal instituzioak lobbyen menpe daude. Estatutua erreferentzia bezala darabilte beren diskur-

tsoan, besterik ez. Zoritxarrez, gobernuan dauden indar politikoak ez daude tentsio politiko bat mantentzeko prest, Estatutua betetzeko.



Beraz, zertarako hitz egin Estatutuaz?

Guk Estatutua “erabili” dugu egoera politikoa aztertzeko eta alderdiek, Jaurlaritzan daudenek barne, ez dutela berau betetzeko ezer egiten frogatzeko. Gure ustez, nazionalismo instituzionala statu quoan instalatu da. EAJ eta EA dira alderdi nagusiak noski, baina ez da alderdi arazo soil. Sindikalismoaren ikuspuntu kritiko batetik salagarria da instituzioetan instalatzeko ezarri duten modua, boterea kudeatzeko modua. Gipuzkoako Foru Aldundiko *cesantias* (kargua utzi ondorengo soldata) da adibide bat. Hori da nazionalismo instituzionalista. Kargudun hauek ez dute herri honen etorkizunaz kezkarik, ez inolako konpromisorik.

Nazionalismo instituzional hori boterean instalatua dela diozu.

Dudarik gabe. Hor dauden interesa karguan irautea da, errepikatzea. Hori oso gogorra da.

Ba al dago egoerari buelta ematea?

Buelta emateko, hasteko egoera onartu behar da, hori dagoela aitortu, egoeraren kontzientzia sortu. Gure zeregina hori esatea da. Batzuetan oker egongo gara, ez dugu azterketetan bete-betean asmatuko beti, ez dena argituko, baina ikusten duguna esaten dugu, hau da, nazionalismo instituzionalaren zeregina oso pobrea dela.

Lan arloko heziketa “negozio esparru” bezala jo duzue, baita eredia baztertu beharra ere. Jaurlaritza kritikatu duzue LABekin batera.

Adibide bat da. Enpleguan ditugun eskumenak argi eta garbi daude Estatutuan, oso zehatz markatuta dago kompetentzia hori. Beharrezko baldintzetan eman ezean ez dugula eredia onartuko esan dugu. Jaurlaritzak, berriz, erabaki du diru hori hartzea, Madrilek inposatzen dituen baldintzetan koma bat aldatu gabe. Atzean joko politikoa dago, ez dago beste azalpenik. Enpresarien interesa ere atzean dago. Lotsa eta zentzu politikoa galdu da. Kafe bat hartzen ari zara kontseilariorde batekin eta esaten dizu: “*Money is money*”. Baina, baina, nondik irten da bere gestioaz horrelako karrikatura egiten duen pertsonaia hau?

Miguel Lazpiur Confebaskeko presidentek “ELAren maximalismoak elkarriketa baldintzatu du” esan digu berriki.

Maximalistak enpresariak dira, ez bakarrik Euskal Herrian, mundu guztian. Euren lehen-tasun bakarra dirua irabaztea da eta bost axola zaie zein baldintzatan. Maximalistak neoliberal-

listak dira eta enpresariak halaxe izan ere. Botere politikoez eta gobernuen maximalismo horri mugak ezarri beharko lizkiokete, baina zoritxarrez ez da horrela. Enpresariak muturrera eramanez dute gizartea, desorekatu, hemen eta planeta osoan. Jaurlaritzako kide batek ere gu maximalistak eta prepotenteak garela esan berri du. Hara, prepotentea izateko boterea izan behar duzu, eta boterea eurek daukate. Sarkasmo eta zinismo handia behar da ELA maximalista dela esateko.

“Langileok, ELAkook behintzat,
euskal administrazioarekin dugun
desengainua handia da,
Jaurlaritzarekin bereziki.
Herritarren eta administrazioaren
arteko apurketa sakona da”

Estatutuaren bidez lortu zitezkeen eskakizun sozialak ez dira bete. Zertan gaude politikoki?

Egun ez dago tentsio politikorik Gernikako Estatutua betetzeko, eta Ibarretxek herri kontsulta planteatu du. Inkoherentzia izugarria dago eguneroko praktika-rekin.

Lizarra-Garaziko Akordioa ez zen aurrera joan. Aldi honetan: PSOE-

EAJ-Batasuna eta Gobernua-ETAren arteko eske-ma landu da transbertsalitatearen bitartez. Nola baloratzen duzu kontzeptu hau?

Transbertsalitatea planteamendu neoestatutista baten ikuspegitik logikoa eta normala da. Estatutuak egitura bat dauka, prozedura bat, mugak ere, noski. Kontua da, logika politikoa aldatu gabe betiere, prozedura hori landuz eta mantenduz ea dagoen Estatutu berri bat egitea. Ikuspegi horretatik transbertsalitatea defendatzea eta lantzea normala da. Kontua bada, esaterako, PSOEren jarrera aldatzea Estatutua aldatzeko, transbertsalitateak balio dezake.

Posible al da presentzia bat Europan? PSOEk onar lezake...

...Baina transbertsalitateak beste marko politiko batera eramanez gaitzake?

Bada, besteekiko errespetu guztiarekin, ez. Ez dugu sinesten horretan. Ni Estatutu zale banintz transbertsalitatea defendatuko nuke eta PSOErekin

harremanak landuko nituzke.

Harritu egin al zaitu bake eta normalizazio prozesua iritsi den unera iritsi izanak?

Ez. ETA, Batasuna eta ezker abertzalea kontraesanetan ari dira. Arriagan esan dugu: gu zain gaude. Ez da desafioa. Gure esperantza da ezker abertzaleak autokritika politikoa egitea Anoeta-ko Proposamenaz. Proposamena –hainbat abertzale alde batera utzita– PSOErekin akordio batera iristeko egin zen. Guk ez dugu bide hori egingarria ikusten. Eta honetan ere “ELA maximalista eta prepotentea da, espaziorik gabe gel-

Autogobernua

ditu da, protagonismoa galdu du” entzun dugu. Barkatu baina eztabaida ez da hori, eztabaida da ea espainolekin akordio bat lortzen dugun marko juridiko-politikoa aldatzeko.

ELAk Lizarra-Garazin “atzerapausoa” eman izana kritikatu zuen ezker abertzaleak.

Ezker abertzaleak konstante bat dauka: eurek esaten dutena ez bada egiten, ez du ezer balio. Eurek zer egin dute? Guk Nafarroan ordezkarrizaren %25 inguru lortu dugu, Nafarroan bada zer bait, e! Tuteran, ordezkarien %20 dugu. Asko egin dugu eta asko egiteko dugu, sindikatu bezala ari naiz. Orduan...

“ELAk hamabost urte behar izan zituen Estatu-tua hiltzat jotzeko. Guk hasieran hiltzat jo genuen” dio LABek.

Arrazoiak daukate, denok daukagu kontraesanak. Eurek berriz borroka armatuaren arazoa ez dute ebatzi oraindik. Gu motelak gara... Sindikalismo errebindikatiboa egiteko ere denbora

“Gure esperantza da ezker abertzaleak autokritika politikoa egitea Anoetako proposamenaz. Proposamena, hainbat abertzale alde batera utzita, PSOErekin akordio batera iristeko egin zen”.

behar izan dugu, baina gauza batzuez autokritika sakona egin dugu, beste batzuek oraindik ez dute egin.

LAB-ELAren elkarlana izango al da berriz ere?

Abertzaleen arazoa, nagusia, Madril da. Madrilen menpe gaude. Madrilgo jarrera antidemokratikoa izugarria da, baina abertzaleok daukagun desafio nagusia elkarrekin lan egitea da. Pluraltasun politiko eta sozial zabala dago herri honetan, kultura eta historia politiko ezberdinak daude. Lotura ezberdinak ditugu eta interes ezberdinak defendatzen ditugu LABk, ELAk zein enpresariet. Enpresari abertzaleak ere badaude eta interes objektibo desberdinak ditugu. Besteak kritikatzea erraza da, besteak errespetatzen ikasi behar dugu. LAB-ELAren arteko harremana berritzeko eta Lizarra-Garaziko Akordiora bueltatzeko gogor lan egin behar da. Hasteko gutxieneko zein puntutan egin dezakegun lan zehaztu behar dugu. Elkarriketaren kultura ez dugu aski landu oraindik eta hori lortu arte ez dugu aukerarik Espainiaren aurrean. Zoritxarrez ez gaude une horretan. ETArekin ekin-tzak, besteak beste, eztabaida eta erreflexioa desorekatzen ditu eta konbergentzia galarazten.

Bien bitartean Ibarretxeren herri kontsulta hor dugu. Ez duzu konfiantza handirik, antza.

Ez. Ibarretxek ibilbide orria azaldu aurretik esan genuen gainera. Galdera da: “Ibarretxek nor du atzean?”. Berak esango du, politikoki korrektok: “Hiru alderdi”. Ez da egia. Zoritxarrez. Eta egia balitz, ez litzateke nahikoa. Madrilgo desafioa egiteko hori baino gehiago behar da, adostasun handiagoa, gizartean ideia landuagoa. Akordioa alderdi guztien artean izanda ere, ez da nahikoa, baina horraino ere ez da heltzen. Ibarretxek ardura politikoa du Gobernuan, baina ez du gutxienekoa defendatu, eta orain herri kontsulta defendatzen du. Hitzek bai, baina ekintzez ez. Ibarretxek hau eta beste dio, baita Madrilgo Gobernuak erantzun ere. Aztertu zer dagoen atzean: nork onartzen ditu Espainiako Kongresuko aurrekontuak? Nork Legebiltzarrekoak? Orain hilabete onartu da azken Kupoak. Zein baldintzetan? Jaurlaritzaren proposamena zarata da. Zarata bakarrik? Ez bakarrik. Baina batez ere zarata. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2108>
helbidean, gai honi buruzko bideoa.

